

Erronka:

Nola jaso eta komunikatu dezakegu Bizkaiko gazteen beharrei eta egoerari buruzko informazio eragingarria?

Azpi-erronkak:

- Nola bil genezake informazio kuantitatiboa hainbat datu-iturritatik, eta nola gurutzatu elkarren artean?
- Nola lor genitzake udalerrri bakoitzeko datu xehatuak eta segmentatuak?
- Nola jaso dezakegu Bizkaiko gazteen errealitate eta beharrian desberdinak islatzen dituen informazio kualitatiboa?
- Nola egin genitzake txosten intuitiboak, bisualki eskuragarriak eta elkarreragileak?
- Nola erabil genezake informazioa ondorio eta proposamen zehatzak ateratzeko?

Testuingurua:

Gazteria Arloa Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Kohesio eta berdintasun Saileko Gizarte Kohesio Zuzendaritza Nagusiko kide da. Bere eginkizunen artean Bizkaiko gazte aniztasunaren beharrak zaintzea dago.

Gaur egun, Gazteria Arloak **informazio** kuantitatiboa eta kualitatiboa **biltzen** du **hirugarrenen hainbat informazio-iturritatik, txostenak egiteko** eta Bizkaiko gazteen egoera ezagutzeko. Datuak biltzeko eta informazio hori aztertzeko **prozesu hori guztia eskuz egiten da**.

Gainera, Gazteria Arlotik jasotzen duten **informazio kualitatiboak ez ditu islatzen Bizkaiko gazteen profilen beharrak** (migratzaileak, sexu-orientazio desberdinak dituztenak, dibertsitate funtzionala dutenak, aniztasuna hezkuntza-mailan edo maila sozioekonomikoan).

Zeharkako gaia denez, Gazteria Arloak gazteengan eragina izan dezan, ezinbestekoa da beste arlo batzuekin lankidetzan aritzea. Horregatik, [Gazteen Diagnostikoa](#) bezalako txostenak egiten dituzte, oso tresna baliotsua Bizkaiko gazteen egoera gainerako Zuzendaritza Nagusiei ezagutarazteko. Baina, **ez dute datuak aztertzeko aukera ematen dien prozesu estandarizaturik, ondorioak eta informazio eragingarria ateratzeko**.

Helburuak:

Gutxienez bi helburu betetzen dituzten irtenbideak bilatzen ditugu:



Hainbat iturritako informazio kuantitatiboa biltzea, elkarren artean gurutzatzea eta aztertzea automatizatzea.

Udalerrika xehatutako eta segmentatutako datuak lortzea.

Informazio kualitatiboa biltzea, Bizkaiko gazte aniztasunaren errealitate eta behar desberdinak ezagutzeko eta horien azterketa automatizatzeko.

Jarduteko eremu zehatzak identifikatzea.

Ondorioak jasotzen dituzten txosten intuitiboak eta eskuragarriak sortzea.

Zer nahi dugu?

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Erronkarako balio argia eta garrantzitsua duen proposamena.
- Merkatuan trakzioa duen soluzio teknologikoa.
- Erabiltzaileentzat intrusio gutxiko esperientzia, barneko langileentzat zama gehigarri handiagorik ez dakarrena.
- Hartzerako eta inplementaziorako erraztasuna.
- Irisgarritasuna eta sinpletasuna: Ezagutza digitalen maila desberdinak dituzten pertsonentzat egokia den soluzioa.
- Soluzio elkarreragilea.

Prozesua eta data garrantzitsuak:


Proposamenaren erantzuna jasotzeko **azken eguna 2024/05/24** da.

Hautaketa-prozesuak honako urrats hauek ditu:

- Bost enpresa hautatzea, kontuan hartuta planteatutako soluzioa noraino egokitzen zaion erronkari
- Hautatutako bost enprekin elkarrizketak egitea, haien jarduera eta balio diferentziala gertuagotik ezagutzeko
- Hiru enpresa finalista hautatzea
- Hiru finalisten pilotatze-proposamena aurkeztea
- Enpresa eta soluzio irabazlea hautatzea



Soluzio irabazlea ezartzeko **pilotatzea 2024ko ekaina eta urria bitartean egingo da, 4 hilabeteko iraupenarekin:**



Erronkari edo prozesuari buruzko zalantzarik baduzu, idatzi e-maila helbide honetara info@bizkaiaok.eus

Zer lortuko duzu?

Pilotatzea ordaintzea (gehienez 15.000 euro).